

ERABAKIA, 2014KO IRAILAREN 18KOA, GRADUONDOKO IKASKETEN ETA NAZIOARTEKO HARREMANEN ARLOKO ERREKTOREORDEARENA, UNIVERSITÉ DE PAU ET DES PAYS DE L'ADOUR-ek ANTOLATU DUEN "EREMU MUGAKIDETAKO AZP-KO LANGILEEN ARTEKO TRUKE MINTEGIA" EKIMENEAN (2014KO AZAROAREN 17TIK 21ERA) UPV/EHU-KO ADMINISTRAZIO ETA ZERBITZUETAKO LANGILEEK PARTE HAR DEZATEN EGINGO DEN DEIALDIAREN OINARRIAK ONARTZEKO.

Université de Pau et des Pays de l'Adour-ek (UPPA) eta Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateak 2011n izenpetu zuten lankidetzahitzarmenaren arabera, bi unibertsitateek alde biko lankidetzajarduerak garatzen dituzte.

Oraingoan, UPPAk "Eremu mugakidetakozko AZPko langileen arteko truke-mintegia" antolatu du, 2014ko azaroaren 17tik 21era. Mintegi horretan, UPV/EHUko, Nafarroako Unibertsitate Publikoko (NUP) eta Universidad de Zaragoza-ko (UZ) administrazio eta zerbitzuetako 15 langilek parte hartu ahaliko dute. Mintegian parte hartu nahi izan duten UPPAko zerbitzuek estatuko hiru unibertsitate horietako langileak hartuko dituzte, eta partaide guztiek esperientziak trukatu dituzte.

UPV/EHUren ustez, oso interesgarria da administrazio eta zerbitzuetako langileek aukera edukitzea UPPAk antolatutako mintegi horretan parte hartzeko, horrek indartu egingo baititu UPPAren eta UPV/EHUren arteko harremanak eta proiektuak.

Ezin dugu ahaztu nazioartekotzea berezkoa zaiola unibertsitateari eta lagungarria dela unibertsitateko irakaskuntzen kalitatea hobetzeko eta aurrerapen positiboak ekarriko dituzten praktikak abian jartzeko.

Hori guztia dela eta, UPPAekin ditugun harremanak indartzeko eta finkatzeko asmoz (baita NUPekin eta UZrekin ditugunak ere), UPV/EHUko Graduondoko Ikasketen eta Nazioarteko Harremanen arloko errektoreordetzak deialdi hau argitaratu du, UPPAren eta Errektoreordetzaren beraren finantzaketarekin.

Azaldutakoaren harira, kreditua egon badagoela kontuan izanda, eta neureak ditudan eskumenak egikaritura,

ERABAKI DUT:

Lehenengoa.- UPV/EHUko administrazio eta zerbitzuetako langileek "Eremu mugakideko AZPko langileen arteko truke-mintegia" ekimenean parte hartzeko deialdiaren oinarriak onartzea eta argitaratzea. Mintegia UPPAk antolatatu du, eta 2014ko azaroaren 17tik 21era izango da. Deialdi hau Campus bakoitzeko unibertsitateko iragarki-taulan argitaratuko da.

Bigarrena.- 3.000,00 €-ko gastua onartzea, parte hartuko duten langileen bidaia-gastuak ordaintzeko. Errektoreordetza honen aurrekontuaren konturako gastua izango da.

Hirugarrena.- Ebazpen honek administrazio-bidea agortu egiten duenez, zenbait bide izango dira aurka egiteko, baina ezingo dira inolaz ere aldi berean erabili:

- a) Aukerako berraztertze-errekurtsoa. Ebazpena Campus bakoitzeko unibertsitateko iragarki-taulan argitaratzen denetik, hilabete izango da errekurtso hau aurkezteko, eta Ebazpena eman duen organoaren aurrean aurkeztu beharko da. Administrazio-errekurtso horretaz baliatu eta, jarritako egunetik zenbatzen hasita, hilabeteko epean espresuki ebatziko ez balitz, ez onartutzat hartuko da. Kasu horretan, zabalik geratuko da bide juridikzionala, b) hizkian azalduta dagoena. Errekurtsoa ustez ez onartutzat hartzen badute, aipatu moduan, 6 hilabete izango dira administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkezteko, ustezko ezezkoaren biharamunetik zenbatzen hasita (Herri Administrazioetako Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 116. eta 117. artikulua eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa Arautzeko uztailaren 13ko 29/1998 Legeko 46. artikulua).
- b) Zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke, dagokion administrazioarekiko auzien epaitegian, bi hilabeteko epean, Ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik hasita (Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa Arautzeko uztailaren 13ko 29/1998 Legeko 8.3. eta 46. artikulua).

Ezin izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri, harik eta jarritako berraztertze-errekurtsoa espresuki ebazten den arte edo ustez gaitzetsi arte.

OINARRIAK:

1.- Deialdiaren xedea.

Deialdi honen xedea da "Eremu mugakideko AZPko langileen arteko truke-mintegia" ekimenean parte hartuko duten UPV/EHUko administrazio eta zerbitzuetako bost langileak aukeratzea. Mintegia UPPAk antolatu du, eta 2014ko azaroaren 17tik 21era izango da.

2.- Aurreikusitako jarduerak.

2.1.- Aipatutako mintegian, UPV/EHUko, NUPko eta UZko administrazio eta zerbitzuetako langileak UPPAko zerbitzuetan hartuko dituzte (Espainiako unibertsitateetako kideekin biltzeko interesa adierazi duten zerbitzuetan), eta jardunbide egokiak trukatu dituzte. Mintegia Pauen, Tarben, Mont-de-Marsanen, Baionan edo Angelun izango da, harrera-zerbitzuaren kokapenaren arabera.

2.2.- Behin-behineko programaren xehetasunak deialdi honen I. eranskinean daude jasota. Hauek dira mintegiaren helburu nagusiak:

- UPPAko eta mugaz haraindiko unibertsitate kideetako administrazio eta zerbitzuetako langileen arteko harremanak sendotzea.
- Mugaz haraindiko proiektuen kudeaketa erraztuko duten prozedura komunak abiarazteko lan egitea.
- Mugaz haraindiko lankidetzak-jarduerak dinamizatuko dituzten tresna berriak prestatzeko aukerak aztertzea.

3.- Aurreikusitako finantzaketa.

3.1.- UPPAk finantzatuko ditu ostatua eta lehen eta azken egunetako eguerdiko otorduak. Ostatua UPPAk zuzenean erreserbatuko du unibertsitatearekin harremana duten hoteletan.

Mugaz haraindiko proiektu hau gauzatzeko ezinbestekoa izan da zenbait finantzaketa-iturriren laguntza, hala nola honako hauena: Conseil Général, Communauté d'Agglomération Pau Pyrénées eta PYREN programa. Azken hori diziplina anitzeko programa bat da, hirueleduna eta egoitza ugarikoa, eta mugaz haraindiko harremanak sustatzea du xede. Frantziako Goi Mailako Irakaskuntzako eta Ikerketako Ministerioak sustatzen du, IDEFI programaren baitan (Gaikuntza Berritzaileko Bikaintasun Ekimenak). UPPAk zuzentzen du programa, eta estatuko hiru unibertsitateek (UPV/EHU, NUP eta ZU) unibertsitate kideku gisa parte hartzen dute.

3.2.- UPV/EHU arduratuko da gainerako gastuez (bidaia eta mantenua), Irakasle eta Ikertzaileen errektoreordeak eta gerenteak UPV/EHUn egindako zerbitzuengatik kalte-ordainen gaineko zehaztapenei buruz 2013ko martxoaren 21ean hartu zuten erabakiaren arabera. (Erabakirako esteka)

3.3.- Graduondoko Ikasketen eta Nazioarteko Harremanen arloko errektoreordetzak deialdi honetarako gordetako kreditua (3.000,00 €) ez bada agortu partaideak aukeratu eta haiek justifikatutako gastuak ordaintzean, soberakina UPV/EHUren nazioartekotzea sustatzeko jardueretara bideratuko da.

4.- Harrera egiteko prest dauden UPPAko zerbitzuak.

4.1.- Deialdi honen 2. eranskinean ikus daiteke UPPAko zer zerbitzu dauden prest "Eremu mugakideko AZPko langileen arteko truke-mintegia" egitasmoan parte hartuko duten UPV/EHUko langileak hartzeko.

4.2.- UPV/EHUko langileren batek proiektu bat badu abian UPPAko beste zerbitzu batekin, zerbitzu horretan aritzeko nahia adierazi ahalko du bere eskarian. UPPA harremanetan jarriko da dagokion zerbitzuarekin, eta harrera egiteko aukerarik badagoen aztertuko du.

5.- Interesdunek bete beharreko baldintzak.

Deialdi honetan parte hartu nahi dutenek baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Interesatzen zaien zerbitzuan darabilten hizkuntza jakitea (ikusi 2. eranskina). Zerbitzuan ez badute gaztelaniaz lan egiten, eskatzaileak B2 ezagutza-maila egiaztatu beharko du zerbitzuan erabiltzen duten hizkuntzetako batean.

b) Zerbitzuko Buruzagitzaren aldeko txostena.

6. Eskaria.

6.1.- Eskariak banakakoak izango dira. Pertsona bakoitzak eskari bakarra aurkez dezake.

6.2.- Eskaerak erantsitako formatuan aurkeztu beharko dira (3. eranskina), atal hauek beteta:

Pertsona identifikatzeko datuak.

b) Interesatzen zaion zerbitzuaren izena.

c) Hala badagokio, zerbitzu horrek eta bere zerbitzuak abian duten UPPA-UPV/EHU proiektuaren xehetasunak. Interesdunak proiektu horretan duen inplikazio-maila.

d) Zerbitzuko Buruzagitzaren aldeko txostena.

e) Harrera-zerbitzuak ez badu gaztelania aipatzen komunikaziorako hizkuntza posible gisa, eskatzaileak zerbitzu horrek lanerako darabilen hizkuntzaren baten (frantsesa edo ingelesa) ezagutza frogatzeko egiaztapen ofizialak adierazi beharko ditu. Lanerako hizkuntzaren B2 mailako ezagutza eskatuko da gutxienez.

6.3.- Eskariarekin batera, harrera-zerbitzuak lanerako darabilen hizkuntzaren ezagutzari buruzko egiaztapen ofizialen kopia bat aurkeztu beharko du (frantsesa edo ingelesa).

6.4.- Erregistro Orokorrean aurkezteaz gain, eskatzaileek eskaria osorik eskaneatuta bidali beharko dute helbide elektronikoa honetara: projects.international@ehu.es

6.5.- Eskariak ez baditu baldintza horiek betetzen, ez badago behar bezala beteta edo aurreko paragrafoan aipatutako dokumentazioa falta bazaio, Graduondoko Ikasketen eta Nazioarteko Harremanen arloko errektoreordetzak 10 egun balioduneko epean akatsak zuzen ditzala edo dokumentuak aurkez ditzala eskatuko dio eskatzaileari, eta jakinaraziko dio horrela egin ezean baztertutzat joko duela eskaria, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 71.1. eta 42.1. artikuluetan ezarritakoarekin bat etorrira.

7.-Aurkezteko epea eta modua.

7.1.- Aurkezteko epea deialdia hiru Campusetako iragarki-tauletan argitaratzen den egunean hasiko da, eta 2014ko urriaren 3an amaituko da.

7.2.- Eskariak Erregistro Orokorrearen edozein bulegotan aurkeztuko dira, eta adierazi egin beharko da zeri buruzkoak diren ("Eremu mugakideko AZPko langileen arteko truke-mintegiaren deialdia"). UPV/EHUko Graduondoko Ikasketen eta Nazioarteko Harremanen arloko errektoreordetzari zuzenduko zaizkio, helbide honetara: Nazioarteko Harremanetarako Bulegoa, Ignacio M^a Barriola Zentroa, 1. solairua, Elhuyar plaza, 1, 20018 Donostia/San Sebastián, Gipuzkoa.

8.- Balorazio-batzordea.

Hautagaitzak baloratzeko batzordea pertsona hauek osatuko dute: UPV/EHUko Nazioarteko Mugikortasuneko zuzendaria, batzordeburu gisa; UPPAko teknikari bat eta Graduondoko Ikasketen eta Nazioarteko Harremanen arloko errektoreordetzako teknikari bat, batzordekide gisa; errektoreordetza parte-hartzaileko teknikaria batzordekidea eta idazkaria izango da.

9.- Balorazio-irizpideak.

9.1.- Balorazio-batzordeak 0-10 puntu emango dizkio hautagai bakoitzari, irizpide hauek oinarritzat hartuta:

- a) Aukeratutako zerbitzuak UPV/EHUrentzat eta UPPArentzat duen interes instituzionala. (0-4 puntu).
- b) UPV/EHUko eskatzailearen zerbitzuaren eta eskatutako UPPAko harrera-zerbitzuaren artean argudiatutako harremanek edo aribideko

proiektuek UPV/EHUrentzat eta UPParentzat duten interes instituzionala. (0-4 puntu).

- c) Eskatzaileak harreman edo aribideko proiektu horietan duen inplikazio-maila. (0-2 puntu).

9.2.- Ahalik eta zerbitzu gehienetako langileak hautatzea izango da helburua. Baldintzak bost pertsonak bakarrik betetzen badituzte soilik parte hartu ahal izango dute zerbitzu bereko kideek.

9.3.- Puntuazio berbera izanez gero, irizpide baztertzailatzat hartuko da 2014an mugikortasuneko laguntzaren bat jaso izana Graduondoko Ikasketen eta Nazioarteko Harremanen arloko errektoreordetzak AZPko langileen mugikortasuna sustatzeko kudeatzen dituen deialdietako batean.

9.4.- Berdinketa bere horretan mantentzen bada, irizpide baztertzailatzat hartuko da mugikortasuneko laguntzaren bat jaso izana Graduondoko Ikasketen eta Nazioarteko Harremanen arloko errektoreordetzak AZPko langileen mugikortasuna sustatzeko kudeatutako aurreko deialdiren batean (zenbat eta berriagoa izan deialdia, orduan eta lehentasun txikiagoa izango du hautagaiak).

9.5.- Prozedura lehiazkoa izango da. Batzordeak hautagaien zerrenda bat osatuko du, puntuazio handienetik txikienera ordenatuta (bost hautatu eta ordezkoen zerrenda).

10.- Ebazpena.

10.1.- Graduondoko Ikasketen eta Nazioarteko Harremanen arloko errektoreordeak, batzordeak egindako balorazioa aztertuta, mintegian parte hartuko duten bost pertsonak aukeratuko ditu.

10.2.- Esleipenaren ebazpena arrazoitua izango dena eta hiru Campusetako iragarki-tauletan argitaratuko da. Nolanahi ere, interesdunei banan-banan jakinaraziko zaie, Herri Administrazioetako Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean aurreikusitako moduan, eskariak aurkezteko eta zuzentzeko epeak amaitu eta hurrengo hiru hilabeteetan. Epe horretan inolako ebazpenik eman eta jakinarazten ez bada, eskaerak atzera bota direla ulertu beharko da.

10.3.- Ebazpenak agortu egiten duenez administrazio-bidea, zenbait bide izango dira aurka egiteko, baina ezingo dira inolaz ere aldi berean erabili:

- a) Aukerako berraztertze-errekurtsoa. Ebazpena jakinarazten denetik hilabete izango da errekurtso hau aurkezteko, eta Ebazpena eman duen organoaren aurrean aurkeztu beharko da. Administrazio-errekurtso horretaz baliatu eta, jarritako egunetik zenbatzen hasita, hilabete epean espresuki ebatziko ez balitz, ez onartutzat hartuko da. Kasu horretan, zabalik geratuko da bide juridikzionala, b) hizkian azalduta dagoena. Errekurtsoa ustez ez onartutzat hartzen badute, aipatu moduan, 6 hilabete izango dira administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkezteko, ustezko ezezkoaren biharamunetik zenbatzen hasita (Herri

Administrazioetako Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 116. eta 117. artikulua eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa Arautzeko uztailaren 13ko 29/1998 Legeko 46. artikulua).

- b) Zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke, dagokion administrazioarekiko auzien epaitegian, bi hilabeteko epean, Ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik hasita (Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa Arautzeko uztailaren 13ko 29/1998 Legeko 8.3. eta 46. artikulua).

11.- Onuradunen betebeharrak.

11.1.- "Eremu mugakideko AZPko langileen arteko truke-mintegia" ekimenerako hautatutako partaideek beren kabuz izapidetu beharko dute kasu horietarako beharrezkoa izaten den lekualdatze-baimena.

11.2.- Aukeraketa-prozesuan kontuan hartutako baldintzaren bat aldatuz gero, Errektoreordetzari jakinarazi beharko zaio, derrigorrean.

11.3.- Bidaiaren eta mantenuaren gastuak ordaintzeko, partaideek gastuen egiaztagiriak eta gauzatutako jardueri buruzko txosten bat aurkeztu beharko dituzte 2014ko abenduaren 15a baino lehen.

11.4.- Hautatutakoren batek ezin badu mintegian parte hartu, idatzi bat aurkeztu beharko dio Errektoreordetzari, zergatik uko egiten duen azaltzeko. Kasu horretan, ordezkoen zerrendako lehenengo pertsonak izango du mintegian parte hartzeko aukera. Hautatutakoak aipaturiko jakinarazpena parte-hartzea oztopatzen dion zioa jakin eta 48 ordu baino lehenago egin beharko du; zioa aldi baterako lanerako ezintasuna edo gaixotasuna izan ezean, kasu horretan lanera bueltatu ostean errespetatu beharko dut 48 orduko aipaturiko epea. Horrela ez badu egiten, etorkizunean beste deialdi baten ezingo du parte hartu.

Donostian, 2014ko irailaren 18an.

Nekane Balluerka Lasa

Graduondoko Ikasketen eta Nazioarteko Harremanen arloko errektoreordea

EREMU MUGAKIDEDO AZP-KO LANGILEEN ARTEKO TRUKE MINTEGIA

- 2014KO AZAROAREN 17TIK 21ERA -

UNIVERSITÉ DE PAU ET DES PAYS DE L'ADOUR

BEHIN-BEHINEKO PROGRAMA:

Astlehena, azaroak 17

- 10:00-12:00. Harrera, UPPAren aurkezpena, AZPko langileentzako tresnen aurkezpena - Paueko Campusa
- 12:00. Bazkaria
- 14:00-15:00. Paueko Campusaren bisita
- 15:00. Administrazio-zerbitzua ezagutzea

Asteartea, azaroak 18

- 9.00-16.30. Administrazio-zerbitzua ezagutzea
- 17:00. Hiria bisita (harrera-tokiaren arabera)

Asteazkena, azaroak 19

- 9:00-16:30. Administrazio-zerbitzua ezagutzea

Osteguna, azaroak 20

- 9:00-16:30. Administrazio-zerbitzua ezagutzea

Ostirala, azaroak 21

- 10:00-12:00. Mintegiaren azterketa (lanen aurkezpena) – Paueko Campusa
- 12:30. Bazkaria

OHARRA: Aurkezpen-bilera (astlehenean) eta mintegia aztertze bilera (ostiralean) Pauen egingo dira. Urruti dauden campusekin bideokonferentzia bat egiteko aukera aztertuko da.



Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea



2. ERANSKINA.- UPPAko zerbitzu hauek adierazi dute interesa "Eremu mugakideko AZPko langileen arteko truke-mintegia" ekimeneko partaideak hartzeko

ZERBITZUA	HIRIA	HIZKUNTZAK	EGINKIZUN NAGUSIEN DESKRIBAPENA	ARIBIDEKO PROIEKTUAK
Errektorearen Kabinetea	Paue	FR/GAZT	Presidentearen agendaz, zeharkako espedienteen jarraipenaz eta zuzendaritza-taldeak hartutako erabakiez arduratzen da. Kanpoko kideekiko harremanak kudeatzen ditu, baita zeremonia eta ekitaldien antolaketa eta ohorezko sariak ere.	-2013. urteaz geroztik harremanetan daude, izaera administratiboko Erasmus UPPA-UPV/EHU mugikortasun-programaren bitartez.
Ikasleen behatokia	Paue	FR/ING	Ikasleen estatistikak, lan-munduratzeari, gogobetetze-inkestak eta abar aztertzen ditu.	-
Clérémo (Hizkuntzen Irakaskuntza)	Baiona	FR/GAZT	Hizkuntzen irakaskuntzaz eta egiaztapenez arduratzen da.	-Hirueletasuna
Zientzia Fakultatea	Angelu	FR	Matematika, Matematika Aplikatua, Gizarte Zientziei Aplikatutako Matematika, Informatika, Fisika, Kimika, Ingurumena, Materialak, Termika, Petrolioaren Ingeniaritza, Energia, Ingeniaritza Elektrikoa, Industria Informatika, Biologia, Geologia, Mikrobiologia, Ingurumen Zientzietarako Bioteknologia, Gizarteko eta Osasuneko Zientziak.	-
Enpresen Administrazioaren Institutua	Baiona Paue	FR/GAZT/ING	Kudeaketa, Informazio Sistemak, Kontabilitatea, Kontu-ikuskaritza, Enpresen Administrazioa, Nekazaritzako Elikagaien	-Titulu bikoitzeko proiektua aribidean, Donostiako EIU Erekin.

GIPUZKOAKO CAMPUSA
CAMPUS DE GIPUZKOA
Arriola 2
20018 Donostia-San Sebastián
(Gipuzkoa)
T: 34 943 018510
F: 34 943 015454

			Antolamendua, Kudeaketa Publikoa, Nazioarteko Kudeaketa.	
Ondarea	Paue	FR/GAZT/ING	Eraikuntzako eta berrikuntzako proiektuak garatzen ditu, eta eraikinak, campuseko berdeguneak eta instalazio teknikoak mantentzeaz arduratzen da.	-
Ikasleak Orientatzeko Bulegoa	Paue	FR/GAZT	Unibertsitatera sartzen diren ikasleak orientatzen ditu. Eremu mugakidean praktikak bilatzeko zerbitzu bat dauka.	-
Nazioarteko harremanak	Paue	FR/GAZT/ING	Zerbitzu honek kudeatzen ditu Erasmus programa, mugaz haraindiko lankidetzak eta abar.	-Lankidetzak-proiektuak abian (irakaskuntza eta ikerketa).
Doktorego-eskolak	Paue	FR/GAZT/ING	Zientzia Zehatzen eta Aplikazioen Doktorego Eskolak eta Gizarte Zientzien eta Humanitateen Doktorego Eskolak osatzen dute.	-Baterako tutoretzak eta doktoralak.
Ikerketako eta Balorazioko Zuzendaritza	Paue	FR/GAZT/ING	Ikerketan eta jakinduria transmititzen laguntzen dute.	- Proiektuen eta ikerketako pizgarrien deialdia. - Trukeak europar proiektuetan.
Campus birtuala	Paue	FR/GAZT/ING	On-line irakaskuntza.	-
Prestakuntza iraunkorra	Paue	FR/GAZT	UPPAk eskainitako diplomekin edo ad hoc prestakuntzekin bateragarriak izan daitezkeen banakako nahiz enpresatako prestakuntza iraunkorreko proiektu guztiak aztertzen ditu, eta eskuratutako diplomak baliozkotzeko bideak antolatzen eta koordinatzen ditu (unibertsitateko ikasketei berriz heldu nahi dieten pertsonentzako zerbitzuak).	-
Liburutegia	Paue-Baiona	FR/GAZT	Pertsona espezializatu bat hartuko lukete gaztelaniako sailean.	-

- Eskatzaileak beste zerbitzu batean aritzeko interesa duela adieraz dezake eskaera-orrrian. Horretarako, bere zerbitzuak aukeratutako zerbitzuarekin dituen loturak edo abian diren proiektuak adierazi beharko ditu.



ANEXO 3

GRADUONDOKO IKASKETEN ETA NAZIOARTEKO HARREMANEN ERREKTOREORDETZAK DEITUTAKO DEIALDIA UPV/EHUko AZPak UNIVERSITÉ DE PAU ET DES PAYS DE L'ADOUR-ek ANTOLATUKO DUEN "EREMU MUGAKIDEN AZP-KO LANGILEEN ARTEKO TRUKE MINTEGIAN" PARTE HARTZEKO (2014ko AZAROAK 17-21).	CONVOCATORIA DEL VICERRECTORADO DE ESTUDIOS DE POSGRADO Y RELACIONES INTERNACIONALES PARA LA PARTICIPACIÓN DE PERSONAL DE ADMINISTRACION Y SERVICIOS (PAS) DE LA UPV/EHU EN EL "SEMINARIO DE INTERCAMBIO ENTRE PAS DE LA ZONA TRANSFRONTERIZA" DE LA UNIVERSITÉ DE PAU ET DES PAYS DE L'ADOUR (17-21 DE NOVIEMBRE DE 2014).
ESKAERA-ORRIA	IMPRESO DE SOLICITUD

1. Datos personales del o de la solicitante / Eskatzailearen datuak

Apellidos – Deiturak:	
Nombre – Izena:	
D.N.I. – NAN:	

Servicio, Centro o Departamento: / Zerbitzua, ikastegia edo saila:			
Puesto de trabajo: / Lanpostua:			
Vinculación: / Lotura:	Funcionario/a de carrera / Karrerako funtzionarioa	Laboral fijo / Lan-kontratuko langile finkoa	
	Funcionario/a interino/a / Bitarteko funtzionarioa	Laboral temporal / Aldi baterako lan-kontratuko langilea	
Fecha de ingreso en la UPV/EHU: / UPV/EHU sartu zineneko data:			
Campus – Campusa:			
Tfno.- Tfnoa:		E-mail:	

2. Información sobre el servicio de la UPPA en la que desea ser acogido (Ver Anexo 2) / Hartua izan nahi den UPPAko zerbitzuari buruzko informazioa

Servicio de la UPPA en la que el o la solicitante desea ser recibido: / Eskatzaileak hartua izatea nahi duen UPPAko zerbitzuaren izena:	
En su caso, detalles del vínculo existente o proyecto en curso entre la UPPA y la UPV/EHU que justifique la elección de dicho servicio de la UPPA: / Egongo balitz, UPPAko zerbitzu hori aukeratu izana argudiatzen duen UPPA eta UPV/EHUren artean dagoen loturari edo martxan dagoen proiektuari buruzko xehetasunak.	



Grado de implicación del o la solicitante en dicho vínculo o proyecto en curso: / <i>*Intesatuak duen partaidetza goian aipaturiko loturan edo proiektuan:</i>	
En su caso, persona de contacto en el servicio de la UPPA elegido (nombre, dirección postal, correo electrónico): / <i>Ezagutzen bada, aukeraturiko UPPAko zerbitzuko harremanetarako pertsona (izen-deiturak, posta-helbidea, posta elektronikoa):</i>	

3. Informe de la jefatura de Servicio /Zerbitzuburuaren txostena

Nombre y Apellidos/Izen-deiturak:	
Cargo que ocupa/ Kargua:	
Breve informe: versará sobre la adaptación y conveniencia de la actividad propuesta con el puesto de trabajo: / <i>Azalpen laburra: proposaturiko jardueraren egokitzapena eta egokitasuna lanpostua kontuan hartuta:</i>	
Firma del/la jefe/a: <i>Buruaren sinadura</i>	

4. Documentación aportada/Aurkeztutako dokumentazioa

(Poner un círculo a la respuesta que corresponda) / (Jarri zirkulu bat dagokion erantzunaren inguruan)	
En el caso de que el servicio no trabaje en castellano (verr Anexo 2) ¿Adjunta certificación de conocimiento del idioma del servicio? (conocimiento mínimo B2): / <i>Zerbitzuak ez badaki gazteleraz, zerbitzuko hizkuntza dakizulako ziurtagiria aurkeztu al duzu? (B2 gutxieneko jakinduria):</i>	SI / NO BAI / EZ

5. Lugar, fecha y firma del o la solicitante/ Eskatzailearen firma, tokia eta lekua

.....